



2021/03/30EKO UDALBATZAREN EZOHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Eguna: 2021/03/30
Hasiera ordua: 19:15
Amaiera ordua: 20:00

Bertaratuak:

Lehendakaria:

Lierni Altuna Ugarte –alkatea- (EH BILDU)

Zinegotziak:

EH BILDU UDAL TALDEA:

Maria Cristina Etxenausia Irure

Iban Herrarte Arana

Oihana Ameskoa Perez

Santiago Balantzategi Beitia

Ana Maria Martiarena Arregi

Gorka Astondoa Altuna

EAJ/PNV UDAL TALDEA:

Juan Antonio Peña Orobengoa

Pedro Elosegui González de Gamarra

Ez bertaratuak:

Idazkaria:

Bittor Agirreurreta Murgia

Aramaion (Ibarran), Udaletxeko bilkura aretoan, goian aipatutako egun eta ordua denean, lehenengo deialdian goian aipatzen diren zinegotzi jaun andreak bildu dira Udal Plenoaren ohiko bilkura burutzeko objektuaz, Lierni Altuna Ugarte Alkate-Lehendakaria Lehendakari dela. Bilkura honetara Udalaren idazkari-kontuhartzailea, Bittor Agirreurreta Murgia, bertaratu da.

Lehendakariak, quoruma dagoela egiaztatuta, hasiera eman dio bilkurari eta aztergaien zerrendan jasotako gaiak jorratzeari ekin dio Udalbatzak:



AURKIBIDEA

| | |
|---|----|
| 1. 2020 EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA.. | 3 |
| 2. ONARTZEA TALDE SOZIOKULTURALAK DIRUZ LAGUNTZEKO 2021 EKITALDIARI DAGOKION DEIALDIAREN OINARRIAK. | 4 |
| 3. ONARTZEA AUZOETAKO JAIK DIRUZ LAGUNTZEKO 2021 EKITALDIARI DAGOKION DEIALDIAREN OINARRIAK. | 7 |
| 4. ARAMAIOKO BAKE EPAILEAREN ETA HAREN ORDEZKOAREN AUKERATZE PROZESUARI HASIERA EMATEA. | 9 |
| 5. ONARTZEA, A.A.B., S.A.REKIN PARTAIDETZA KONTU KONTRATUAREN ERANSKINA | 10 |
| 6. ONARTZEA, 2021EKO UDAL AURREKONTUA. | 11 |



1. 2020 EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA.

Alkate-lehendakariak hitza hartu eta aurkezten du, 2020ko ekitaldiari dagokion likidazioa. Gogorazi behar da likidazioa egin eta onartzea alkateari dagokiola indarrean dagoen araudiarekin bat.

Laburbilduz, 2020ko ekitaldian, ondorengo emaitzak lortu dira (kopuruak eurotan):

| AURREKONTU EMAITZA 2020 EKITALDIA | Euroak |
|---|-------------------|
| (+) Likidatutako eskubide garbiak | 1.807.407,81 |
| (-) Onartutako obligazio garbiak | 1.782.434,41 |
| (=) Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza gordina | 24.973,40 |
| (+) Doiketak, diruzaintzako gerakinen bidez finantzatutako obligazioengatik | 184.038,75 |
| (-) Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik | 103.632,07 |
| Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza | -11.592,82 |
| AURREKONTU EMAITZA 2020 EKITALDIA | 301.051,40 |

| DIRUZAINZAKO SOBERAKINA 2020 EKITALDIA | Euroak |
|---|---------------------|
| (+) Diruzaintzako izakin likidoak | 1.641.454,35 |
| (+) 2020 ekitaldiko aurrekontuetako zordunak | 273.276,03 |
| (+) Itxitako aurrekontuetako zordunak | 127.210,23 |
| (+) Aurrekontuz kanpoko zordunak | 32.477,92 |
| (-) Beste sarrera batzuk | 0,00 |
| Guztira Kobratu Gabeko Eskubideak | 432.964,18 |
| (-) 2020 ekitaldiko aurrekontuetako hartzekodunak | 204.066,71 |
| (-) Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak | 28.431,93 |
| (-) Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak | 222.440,47 |
| (+) Beste hartzekodun batzuk | 149,73 |
| Guztira Ordaintzeko dauden zenbatekoak | 454.789,38 |
| (=) DIRUZAINZAKO GERAKIN GORDINA | 1.619.629,15 |
| (-) Eskubide kobragaitzak | 100.683,15 |
| (=) DIRUZAINZAKO GERAKIN LIKIDOA | 1.518.946,00 |
| (-)Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintzako gerakina | 15.845,93 |
| (=) GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZAKO GERAKINA | 1.503.100,07 |

| ZOR BIZIA (2020/12/31n) | Euroak |
|--|---------------|
| Aramaioko Udalaren zor bizia (2020/12/31n) | 0,00 |

| DIRUZAINZAKO IZAKINAK (2020/12/31n) | Euroak |
|--|-----------------------|
| Udal Kutxa | 45,21 € |
| Kutxabank zergabilketa kontua | 218.536,57 € |
| Kutxabank kontu operatiboa | 382.085,87 € |
| Laboral Kutxa kontu operatiboa | 532.400,51 € |
| Laboral Kutxa zergabilketa kontua | 508.386,19 € |
| DIRUZAINZAKO IZAKINAK OROTARA | 1.641.454,35 € |



Baita ere, adierazi beharra dago, araudiak ezarritako defizitaren eta zor publikoaren helburuak betetzen direla eta, baita ere, gastu araua (honen berri ematen da, nahiz eta, gaur egun, araudi horren aplikazioa etenda izan, pandemiak sortu duen egoeraren ondorioz).

Besterik gabe, alkateak aurkezten du Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordeak egindako diktamena. Diktamenak horrela dio, hitzez hitz:

“**Lehena.-** Adieraztea, 2020ko ekitaldiaren likidazioaren emaitzen jakinaren gainean gelditzen dela.

Bigarrena.- Onartu den likidazioaren espedientearen kopia bat Arabako Foru Aldundira eta Arabako Ogasun Delegaziora bidaltzea.”

Bozketa deitu eta Udalbatzak, bertaratutako zinegotzi guztien aldeko botoarekin Hirigintza Batzordeak proposatutako erabakia, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.

Inork akta horiei buruz oharpenik ez duenez, lehendakariak aktak onartzeko bozketa deitu du eta aho batez onartu dira, 2568/1986 Errege Dekretuaren, azaroaren 28koaren, Toki Erakundearen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Eraentza Juridikoaren Erregelamendua onartzen duenaren 91. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2. ONARTZEA TALDE SOZIOKULTURALAK DIRUZ LAGUNTZEKO 2021 EKITALDIARI DAGOKION DEIALDIAREN OINARRIAK.

Alkate-Lehendakariak hitza hartu eta aurkezten du Kultura eta Kirol Batzordeak adostutako oinarriak, talde soziokulturalentzat diru-laguntzen deialdia egiteko 2021 urtean.

“KULTURA, KIROL ETA GIZARTE ARLOKO DIRULAGUNTZA. 2019KO DEIALDIA.

OINARRIAK

1.- Deialdiaren xedea.

Aurrekontuaren muga barruan, gastuen finantzaketan laguntzea Aramaioko udalerrian 2021ean antolatzen diren kultura, euskararen sustapen eta kirol eta/edo gizarte arloetako jarduerari eta, orobat, helburuak zehaztea herritarrei bermatzeko, baldintza berberetan eskuratu ahal izatea prestazio hauek, udal eskumenekoen osagarri edo ordezkotako diren zerbitzuak eta jarduerak egiteko.

Programa honen xede diren laguntzetara bideratutako diru kopurua 17.080,16 eurokoa da.

2.- Onuradunak.

Diru-laguntza deialdi honetara elkarteak, kultura eta/edo gizarte taldeak eta entitate publiko zein pribatuak aurkez daitezke, baldin eta irabazteko asmorik ez badute eta aurreko puntuan zehaztutako ekintzen artekoen baten bat bada; Aramaion eduki beharko dute egoitza, eta gainera, baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Legez eraturik eta Eusko Jaurlaritzaren Elkarte eta Entitateen Erregistroan inskribaturik egotea.
- Beren programak eta aurrekontuak Administrazio Publikoaren publikoaren ikuskaritzapean jartzea.

Herritarrak ere aurkeztu ahal izango dira, banaka, baldin eta maiz edo noizbehinka biltzen badira adieraziko motako jarduerak egiteko eta aurrekoari kalterik egiten ez badio.

3.- Diruz lagundu daitezkeen programak eta jarduerak.

Diru-laguntza hauek kultura, aisia, gizarte ekintza, hezkuntza, euskara eta kirol arloetan antolatzen diren jardueretarako emango dira.

Ez dira inolaz ere onartuko honako ekintzarik:

- Erljio edo sexu arrazoiengatik baztertzen duenik, ezta ere edonolako kolektiborik baztertzen duenik.
- Ikuskizun, jai edo bestelako ekintzetan animaliek tratatu txarrak jasaten duenik.
- Ingurugiroa kaltetzen dutenik
- Euskararen erabilera lehenesten ez dutenik

Ezinbestekoa izango da barne eta kanpo komunikazioak euskaraz izatea.

4.- Eskerak eta aurkeztu beharreko agiriak.

Laguntzak jaso nahi dituzten elkarteek eskaera aurkeztu beharko dute, honako agiri hauekin batera:

- Eskaera-orri ofiziala(Eranskina)



- Eskaera sinatzen duenaren NANaren fotokopia, elkartearen ordezkari den aldetik, eta elkartearen IFZ.
- Erakundearen estatutuen fotokopia eta legez erata eta erregistratuta dagoela egiaztatzen duen agiria (eskaera egiten den lehenengo aldia edo aldaketaren bat egiten denean soilik aurkeztu beharrekoa).
- Aurreikusitako ekitaldien programa, urtero egiten den aldirako (lortu nahi diren helburuak, jarduera bakoitzerako aurreikusitako lekua, data eta iraupena, nori zuzenduta dagoen eta jardueren onuradunen kopurua). (II. Eranskina)
- Diru-laguntzaren bidez garatzekoak diren jardueren diru sarreraren eta gastuen aurrekontu xehatua.
- Diru-laguntza jaso ahal izango duen programa garatzeko beste erakunde publiko zein pribatu batzuei eskatutako diru-laguntzen zinpeko aitortpena edo, badaude, emandako diru-laguntzena eta ematear daudenena.
- Zerga zorrik ez duela eta Gizarte Segurantzaren ordainketetan egunean dagoela adierazten duen ziurtagiria. (III. Eranskina)

Azkeneko bi agiri horiek, Diru-laguntzei buruzko 38/03 Lege Orokorraren 13. artikularen 2. eta 3. paragrafoetan jasotzen diren onuradun izaera lortzeko debekuen eraginpean ez egotearen aitortpenak ordezkatu ahal izango ditu. Aitortpen hori administrazioko agintariaren aurrean aurkeztuko da. (II. Eranskina)

Diru-laguntza hauen eskaerak aurkezteak berekin dakar oinarri hauetan ezarritakoa formalki eta berariaz onartzea.

Ezin izango dituzte diru-laguntza hauek eskuratu Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak IV. tituluan aipatzen dituen arau hausteengatik zigorra izan dutenek.

Udalak interesdunei eskatuko die akatsak zuzentzeko hamar eguneko epealdian (ezin izango da luzatu) eta ohartaraziko die, eskatutakoa egin ezean, eskaeran atzera egintzat hartuko dela, beste izapidetik gabe.

Datu Pertsonalen Babesari buruzko abenduaren 13ko 15/99 Lege Organikoan xedatutakoa betetzeko, erakunde eskatzaileei ohartaraziko zaie aurkeztutako agirietan emandako datuak oinarri hauek arautzen duten deialdiko diru-laguntzak emateko prozeduran soilik erabiliko direla.

5.- Eskaerak aurkezteko epealdia.

Eskaerak aurkezteko hoguei egun naturaleko epealdia egongo da, deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Izaera puntuala edo apartekoa duten jarduera edo programetarako eskaerak, hasi baino hilabete lehenago aurkeztu behar dira. Nolanahi ere, eskaerak urteko azaroaren 18rako aurkeztu behar dira.

Salbuespen gisa, xedatutako epetik kanpo aurkeztutako eskaerei diru-laguntzak eman ahal izango zaizkie, baldin eta horretarako dirurik badago, eta Aramaioko Udalaren helburu publikoetarako interesekoak badira.

Diru-laguntzak eskuratzeko eskaerak aurkezteak esan nahi du oinarri hauetan eta kasuan kasuko oinarri espezifikoen ezarritakoa formalki eta berariaz onartzen dela.

6.- Balorazio irizpideak.

Aramaioko Udalak emango dituen diru-laguntzak ekitaldiak aurrera eramateko elkarteek izaten duten defizitaren zati bat estaltzeko izango dira, udalaren ustez diru-laguntza jaso ezin duten gastuen aurrekontua kendu ondoren.

Diru-laguntzak ematea borondatezkoa izango da; hortaz, ez da inolako betebeharririk egongo deialdi honetako oinarriak betetzen dituzten eskaera guztiei diru-laguntza emateko.

6.1.- Eskaeran adierazitako datuak baloratuko dira laguntzen zenbatekoa finkatzeko.

6.2.- Diru-laguntzak emateko eta haien zenbatekoak finkatzeko irizpideak, IV. eranskinean ezarritakoaren arabera izango dira.

✘ Ondorengo hauek ez dira gastu konputagarriak puntuazio baremoaren arabera laguntza kalkulatzeko, ez eta justifikatzeko modukoak ere, baina bai jardueraren gastu osoa konputatzeko:

- Janariak oro har.

7.- Eskaerak aztertzea eta ebatzea.

Eskaerak aurkezteko epealdia amaitutakoan aztertuko dira eta bakoitzari diru-laguntza eman edo ez ebatziko da.

7.1.- Espedientea bideratzeko eta ebatzeko eskumena daukan organoa.

Espedientea bideratzeko organo eskuduna kultura arloko zinegotzia izango da.

Balorazio batzordea kultura batzorde informatzaileak osatuko du.

Ebatzeko eskumena Alkateak dauka.

7.2.- Aztertzea eta ebatzea.

Bideratzaileak jarduera hauek egin behar ditu:

- Ebazpena emateko beharrezkotzat jotzen diren txostenak eskatu.



- Eskaerak ebaluatu oinarri hauetan ezarritako irizpideen, helburuen edo lehentasunen arabera.
- Espedientea ikusita, bideratzaileak ebazpen proposamena aurkeztuko du, behar bezala arrazoituta.
- Ebazpen proposamenak puntu hauek eduki beharko ditu, gutxienez: diruz lagundu daitekeen proiektua, zenbatekoa, lortutako puntuak eta justifikatzeko epea.
- Ebazpenean ondokoak azaldu behar dira gutxienez: diru-laguntza jasoko duten eskatzaileen zerrenda (bakarra izan daiteke) eta gainerako eskaerak ezetsi direla.
- Halaber, ebazpenean bertan jakinaraziko zaizkie interesdunei ebazpenaren aurka jar ditzaketen errekurtsioak, zer organo judiziali aurkeztu behar dizkieten, eta hori egiteko epea; dena dela, interesdunek egoki irizten dioten beste edozein eskubide ere gauza dezakete.

Eskaerak ebazteko epea sei hilabetekoa izango da, aurkezteko epealdia bukatzen denetik. Epealdi horretan ebazpenik ematen eta jakinarazten ez bada, eskaerak ezetsizat jo beharko dira.

Ebazpenak administrazio bidea agortzen du, beraz, Administrazioarekiko Auzibideetarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeko 9.c) artikulua xedatutakoaren ildotik, haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkez daiteke administrazio auzietarako epaitegi nagusietan. Horretarako bi hilabete izango dira ebazpena jakinarazten denetik aurrera.

Zuzenean aurka egin ezean, hilabeteko epealdian errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organoari, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 116. eta 117. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak finkatutako testua).

8.- Diru-laguntzaren zenbatekoa.

Diru-laguntzaren zenbatekoa, bakarrik edo beste diru-laguntza batzuekin batera, ezingo da inoiz jardueraren kostua baino handiagoa izan.

Jasotako diru-laguntza berriro aztertu ahal izango da, diru-laguntza osagarriak edo beste erakunde batzuen diru-laguntzak jaso direla jakindakoan, bai eta bestelako diru sarrerarik izan bada ere.

9.- Zuritzea eta ordaintzea.

Diru-laguntza bi zatitan ordainduko da:

- Ehuneko 75, ematea ebazten den unean.
- Gainerakoa, diruz lagundutako jarduerak eta programak egin direla justifikatzen denean; horretarako, honako agiri hauek aurkeztu behar dira:

1) Diruz lagundutako proiektu edo programa bakoitzaren **memoria-likidazioa eta justifikazio kontu erraztua**; datu hauek adierazi behar dira:

- Egindako jarduerak.
- Aldiak: egunak eta orduak.
- Parte-hartzaileak.
- Helburuak eta balorazioa
- Jarduerak sortutako sarrera eta eragindako gastu guztien balantzea. Kontzeptu guztiek sortutako sarrerak hartu behar dira kontuan: bazkideen kuotak, laguntza ekonomiko publiko zein pribatuak, eta jasotako gainerako diru kopuru guztiak (materialen salmentagatik jasoak, zozketek sortuak...).

2) Diruz lagundutako gastuen kopuruagatik egiaztigiri (fakturak) originalak edo fotokopia konpultsatuak. Fakturak edo egiaztigiriak onartuak izateko, ondorengoak jaso beharko dute gutxienez: Hornitzailearen identifikazio datuak, helbidea eta CIF/NIFa; eroslearen identifikazio datuak (dirulaguntza eskaera aurkezten duen elkarte edo pertsonaren berdina izan behar da), helbidea eta CIF/NIFa; kontzeptua, data, zenbatekoa; BEZa eta faktura zenbakia.

Udalak egoki irizten dituen dokumentu gehigarriak eskatu ahal izango dizkie onuradunei.

Gastuen frogagiriak inprimakiko kontzeptuen arabera antolatu eta multzokatu behar dira.

3) **Zinpeko aitortpena**: xede bererako edozein administrazio edo erakunde edo entitate publikorengandik dirulaguntzak edo laguntzak jaso(k)o dituen edo ez. Beste dirulaguntzaren bat lortuz gero, zenbatekoa izan den zehaztu behar da eta zer administrazioek eman duen argitu, eta datuok benetakoak direla frogatzen duen agiria aurkeztu behar da.

4) Diruz lagundutako jarduerari buruzko **programa, kartel eta publizitateko elementuen ale bana**.

Aurkeztutako ordainagiriaren kopurua diruz lagundutako aurrekontua baino txikiagoa bada, edo diruz lagundutako jardueraren bat burutu ez bada, onuradunak horren berri emango dio udalari, gainerako zenbatekoa udalaren diruzaintzan sartzeko edo, bestela, diru-laguntza murrizteko.

Justifikazioa abenduaren 30a baino lehen aurkeztu behar da, deialdia zein urterri dagokion, urte hartan.



10.- Arauak ez betetzea eta ondorioz diru-laguntza itzuli behar izatea.

Onuradunak diru-laguntza jasotzeko jarri diren baldintzak betetzen ez baditu eta, era berean, aurkeztu beharreko datuak eta agiriak faltasutzen edo gordetzen baditu, kendu egingo da diru-laguntza, eta kasu horretan itzuli egin beharko du jasotako zenbatekoa.”

Besterik gabe, Alkate-lehendakariak aurkezten du, Kultura eta Kirol Batzordeak adostutako diktamena:

“Lehena.- 2021ean talde soziokulturalei diru laguntzak banatzeko deialdiaren oinarriak onartzea.

Bigarrena.- 2021eko talde soziokulturalen artean banatzeko diru-laguntzen gastua onartzea, 17.080,16 eurokoa.

Hirugarrena.- Dagokionean, deialdia zabaltzea.”

Bozketa deitu eta Udalbatzak, bertaratutako zinegotzi guztien aldeko botoarekin, aho batez, Kultura eta Kirol Batzordeak adostutako oinarriak eta proposamena, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.

3. ONARTZEA AUZOETAKO JAIK DIRUZ LAGUNTZEKO 2021 EKITALDIARI DAGOKION DEIALDIAREN OINARRIAK.

Alkate-Lehendakariak aurkezten du Kultura eta Kirol Batzordeak adostutako oinarriak, Auzoetako jaiak diruz laguntzeko deialdia egiteko 2021 urtean:

“AUZOETAKO JAIK. 2020KO DEIALDIA.

OINARRIAK.

LEHENENGOA.- Deialdiaren xedea:

Aurrekontuaren mugaren barruan, Aramaioko udalerraren eremuan 2021eko auzoetako jaiak edo erromeriak antolatzeko diru-laguntzak ematea.

Programa honen xede diren laguntzetara bideratutako diru kopurua 13.500 eurokoa da.

BIGARRENA.- Onuradunak:

Aramaioko auzo elkarteak (auzo alkateen bidez) eta Oletako Batzar Administrazioa.

HIRUGARRENA.- Baldintzak:

Ez dira inolaz ere onartuko honako ekintzarik:

- Erlijio edo sexu arrazoiengatik baztertzeko duenik, ezta ere edonolako kolektiborik baztertzeko duenik.
- Ikuskizun, jai edo bestelako ekintzetan animaliek tratatu txarrak jasaten duenik.
- Ingurugiroa kaltetzen dutenik
- Euskararen erabilera lehenesten ez dutenik

LAUGARRENA.- Dirulaguntzen izaera:

Diru-laguntzak borondatezko izaera izango dute, beraz, Udalak ez du aurkezten diren eskakizun guztiei dirulaguntza emateko obligaziorik, nahiz eta deialdi honen oinarriak bete.

BOSTGARRENA.- Dirulaguntzen zenbatekoa:

Diru-laguntzak programaren kostuaren eta kostu hori ordaintzeko dauden baliabideen araberakoa izango da, eta garrantzitsua da kontuan izatea sustatzaileak berak berezko baliabideak sor ditzakeela Herri Administrazioen bitartez. Hala ere, dirulaguntzaren zenbatekoa ezingo du inolaz ere gastuaren %80koa baino gehiago izan.

Dirulaguntzak, aurkeztutako eskaeren balorazioaren menpe egongo dira. Balorazio hori, Kultura Batzordeak egingo du Kultura teknikariaren laguntzarekin. Azken honek, auzoek aurkeztutako dirulaguntzen txostena eta aurreko urteetan emandako dirulaguntzen erlazioa egingo du.

Batzordeak, eskaeren eta txostenaren arabera, auzo bakoitzaren eskaeraren balorazioa egingo du

Emandako diru-laguntzaren zenbatekoak (bakarrik udalarena zein beste entitate batzuen diru-laguntza edo laguntzekin batera) ezin du inolaz ere elkarte edo entitate onuradunak egingo duen jardueraren kostua gainditu.

Behin eskaera bakoitzaren balorazioa eginda, Kultura Batzordeak proposamena Alkateari luzatuko dio.

SEIGARRENA.- Dirulaguntzen ordainketa:

Auzo bakoitzari dagokion zenbatekoa jakin eta gero, ordainketa banaketa honako hau izango da:

- Egitarauaren hasieran dirulaguntzaren ehuneko 75.



Esp. kodea.: 2021APAK0003

Gaia: 2021/03/30 UDAL PLENOAREN EZOHICO BILKURAREN AKTA

- Ehuneko 25, jardueraren txostena eta sortutako gastuen fakturak aurkezterakoan eta ontzat ematerakoan.

Hasieran emandako ehuneko 75a osorik ez bada justifikatzen, diru hori itzuli beharko dio udaletxera eta ez du gainerako ehuneko 25a jasoko.

Salbuespen moduan eta arrazoi justifikatuagatik dirulaguntzaren totala ordainketa bakarrean egiteko aukera dago, beti ere ordainagiriak eta justifikazio txostena entregatuz eta Kultura Batzordeak horrela proposatzen badu.

ZAZPIGARRENA.- Eskaerak:

Diru-laguntza hauek lortzeko interesa duten Elkarteek edo norbanakoek honako hau aurkeztu beharko dute,

- Eskaera-orri ofiziala eta inprimakia. Jai bakoitzeko inprimaki bat bete beharko da.
- Harremanetarako pertsonaren helbide elektronikoa
- Jaietako ekintzen programa
- Gastuak eta diru sarrerak (Arabako Foru Aldundia, Vital Kutxa,edo bestelako entitateetik lortutakoak, kuotak,...)
- Elkartearen kasuetan NIFaren fotokopia eta norbanakoen kasuan NANaren fotokopia.
- Gizarte Segurantzaren eta Ogasuneko Diruzaintza Orokorrekin dituen betebeharretan eguneratuta dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria; horren orde zinpeko aitortpen bat aurkeztu ahal izango da, betebeharrak fiskal eta/edo zerga-betebeharrak beteta dituela dioena. Komenigarri irizten bada, bi ziurtagiri horiek eskatu ahal izango dira.

Aurkeztutako eskabideek adierazi diren baldintzak betetzen ez badituzte, interesatuei ohartaraziko zaie akatsak hamar egunetako epean zuzendu ditzaten, eta honela egiten ez badute, eskaera artxibatu egingo da, eta dirulaguntza ukatuztat joko da.

ZORTZIGARRENA.- Epea:

Aurkezteko bi epe desberdin egingo dira eta eskatzaile bakoitzak erabakiko du noiz aurkeztu:

- Ekainak 1

edo

- Irailak 3

BEDERATZIGARRENA.- Justifikazioa eta ordainketa:

Dirulaguntza bi ordainketetan jasoko da:

- Ehuneko 75 eskaera ontzat hartzen denean.
- Gainerakoa, aurreikusitako ekintzak egin direla justifikatzen denean, honako hau aurkeztuz:
 - Ekintzen memoria-likidazioa (eredua udaletxean eska daiteke).
 - Likidazio ekonomikoa: zehaztu gastuak eta sarrerak (3.Erasnkina)
 - Diruz lagundutako gastuen kopuruagatik egiaztagiria (fakturak) originalak edo fotokopia konpultsatuak. Fakturak edo egiaztagiria onartuak izateko, ondorengo jaso beharko dute gutxienez: Hornitzailearen identifikazio datuak, helbidea eta CIF/NIFa; eroslearen identifikazio datuak (dirulaguntza eskaera aurkezten duen elkarte edo pertsonaren berdina izan behar da), helbidea eta CIF/NIFa; kontzeptua, data, zenbatekoa; BEZa barne edo kanpo eta faktura zenbakia.
 - Esku orrien aleak. Ale horietan Aramaioko Udalaren laguntzaren berri eman beharko da.

Justifikazioa, **jaiak bukatu eta hilabeteko epea** egongo da udal bulegoetan entregatzeko.

Ebazpena eta jakinarazpena egiteko epea sei hilabetekoa izan da, beti ere, abenduaren 30a baino lehen.

HAMAIGARRENA.- Ulertzeko modua:

Oinarri hauek nola ulertu behar diren argi ez badago, Aramaioko Udaleko Kultur Batzordeak ebatziko du zalantza.

HAMABIGARRENA.- Organo eskuduna:

Kultura Batzordea izango da espedientearen instrukzioa egingo duen organoa. Alkatea izango da dirulaguntzen ebazpena egingo duen organoa.”

Besterik gabe, Alkate-lehendakariak aurkezten du, Kultura eta Kirol Batzordeak adostutako diktamena:

“**Lehena.-** Onartzea, 2021ean auzoetako jaiak diruz laguntzeko deialdiaren oinarriak.

Bigarrena.- 2021eko auzoetako jaiak antolatzeko diru-laguntzen gastua onartzea, 13.500,00 eurokoa.



Hirugarrena.- Dagokionean, deialdia zabaltzea.”

Bozketa deitu eta Udalbatzak, bertaratutako zinegotzi guztien aldeko botoarekin, Kultura eta Kirol Batzordeak adostutako oinarriak eta proposamena, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.

4. ARAMAIOKO BAKE EPAILEAREN ETA HAREN ORDEZKOAREN AUKERATZE PROZESUARI HASIERA EMATEA.

Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko Epaitegirik ez dagoen udalerrri bakoitzean, eta jurisdikzioa dagokion epe-mugan izanik, bake-epaitegi bat egongo da.

Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren 298.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, bake-epaileek jurisdikzio-eginkizunak betetzen dituzte karrera judizialeko kide izan gabe, lege horretan ezarritako araubideari lotuta, profesionaltasun-izaerarik gabe eta aldi baterako mugiezintasunez, eta Botere Judizialeko kide dira beren agintaldian.

Botere Judizialaren Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren 100. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, bake-epaileek ardura izango dute lege bidez beren eskumenekoak diren prozesuen ordena zibilean eta penalean. Erregistro Zibilaren eginkizunak ere beteko dituzte, bai eta legeak esleitzen dizkien gainerakoak ere.

Dagokion justizia-auzitegi nagusiko gobernu-salak izendatuko ditu bake-epaileak eta haien ordezkooak, lau urterako.

Bake-epaile izendatu ahal izango dira, bai titularrak bai ordezkooak, Zuzenbidean lizentziatuak izan ez arren, Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoan karrera judizialean sartzeko ezarritako baldintzak betetzen dituztenak, salbu eta kargurako eragozpen fisiko edo psikikoak badituzte, eta ez badaude funtzio judizialak betetzeko aurreikusitako ezintasun- edo bateraezintasun-kausetan sartuta, 1995eko ekainaren 13ko Lanbide- edo merkataritza-legearen 13. artikuluan eta ekainaren 6. artikuluan (lanbide-jardueren edo merkataritza-jardueren 6. artikuluan) ezarritakoetan izan ezik.

Bake-epaile titularra eta ordezkooa hautatzeko prozedura, laburbilduz, honako hau da:

- A. Bake-epaile titularren eta ordezkooaren kargu hutsak behar besteko aurrerapenarekin iragarriko ditu Udalak, deialdi publiko bidez, eskabideak aurkezteko epea eta tokia adierazita.
- B. Hautaketa-prozesuan parte hartu ahal izateko, karrera judizialean parte hartzeko betekizunak bete beharko dira, Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren 302. eta 303. artikuluekin bat etorritik:
 - a) Espainiako nazionalitatea izatea.
 - b) Adinez nagusia izatea.
 - c) Botere Judizialaren Lege Organikoan aurreikusitako ezgaitasun-kausetako batean ere ez egotea (389. artikulua).
- C. Udaleko osoko bilkurak hautatuko ditu bake-epaileak eta haien ordezkooak, kideen gehiengo osoaren aldeko botoarekin, legezko baldintzak betetzen dituzten eta hala eskatzen duten pertsonen artetik.

Eskatzailerik ez badago, Osoko Bilkurak askatasunez aukeratuko du (Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren 101.1 artikulua eta Bake Epaileen ekainaren 7ko 3/1995 Erregelamenduaren 4. eta 6. artikulua).
- D. Erabakia Udaleko Osoko Bilkurak onartu ondoren, lehen auzialdiko eta instrukzioko epaileari bidaliko zaio, eta hark gobernu-salari helaraziko dio.
- E. Justizia Auzitegiko gobernu-salak uste badu Udalak hautatutako pertsonak legeak eskatzen dituen gaitasun- eta hautagarritasun-baldintzak betetzen dituztela, kasuan kasuko izendapenak egingo ditu, eta Probintziako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko aginduko du.

Besterik gabe, alkateak aurkezten du Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordeak Udalbatzari egiten dion proposamena:

“**Lehena.-** Hasiera ematea, Aramaioko bake epailearen eta haren ordezkooaren aukeratze prozesuari.



Bigarrena.- Egoki diren iragarkiak argitaratzea eta hasiera ematea 15 laneguneko epeari, interesdunek partehartzeko eskaerak aurkez ditzaten.”

Besterik gabe, alkateak bozketa deitu eta Udalbatzak, bertaratutako zinegotzien aldeko botoarekin, aho batez, Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordearen proposamena, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.

5. ONARTZEA, A.A.B., S.A.REKIN PARTAIDETZA KONTU KONTRATUAREN ERANSKINA.

Alkate-Lehendakariak hitza hartu eta, gogorarazten du, 2012ko abenduaren 12an hitzartu zutela Aramaioko Argindar Banatzailea S.A. enpresak (AAB) eta Aramaioko Udalak, gaur egun indarrean dagoen partaidetza kontratua. Horren bidez arautzen da, besteen artean, AABk udalari urtero ematen dion diru kopurua nola kalkulatu behar den. Kalkulu hori hainbat bariablen menpe dago eta, horien artean, garrantzi handikoa da udalak hasieran aportatu zuen ibilgetuaren balioa. Gaur egun, kalkulua errazteko beharra ikusi da, batez ere, amortizazioaren ondorioz, urteetan egindako inbertsioek ibilgetuaren kopurua handitu dutelako eta, baita ere, kalkulua erraztuko duten kopuru finkoagoen beharra ikusten delako.

Hartara, gai horretan udala eta AAB aholkatzen dituen enpresa kontsultoreak (PKF Attest) kontratua aldatzeko gehigarri bat eratu du, bi alderdiek aldaketa egitea onartu ondoren, kalkulua egiteko modua berritzeko. Halaber, gomendagarria da 2020ko urtarrilaren 1eko atzeraeragina ematea, kontuan izan beharra dago, guztia lehenbailehen zuzentzea nahi dela eta, modu horretan, 2021ean udalari eman beharreko kopurua formula berriaren bidez kalkulatu ahal izango dela.

Halaber, gogorarazten du, Udalbatzak honekin jarraitzea onartzen baldin badu, lehen alkateordea eskuordetu beharko dela dagokion dokumentua sinatzeko, alkatea abstentzio egoera argian baitago AABren lehendakari eta ordezkari bezala sinatu behar duelako dokumentu berbera.

Besterik gabe, alkateak aurkezten du kontratuaren eranskina. Hitzez hitz, dokumentuak horrela dio:

“Aramaioko Udalak eta Aramaioko Argindar Banatzailea S.A.k 2012ko abenduaren 28an Aramaion sinatutako Partaidetza Kontu Kontratuari aldaketa eranskina

Aramaion, 2021eko martxoaren 30ean.

BILDU DIRA

Batetik,

Aramaioko Udala (aurrerantzean, Udala), CRISTINA ETXENAUSIA IRURE, Aramaioko Udaleko lehen alkateordea, udalbatzak ekintza honetarako behar bezala eskuordetuta 2021ko martxoaren 30eko bilkuran.

Bestetik,

ARAMAIOKO ARGINDAR BANATZAILEA S.A. (aurrerantzean, AAB), 2000ko abenduaren 27an egiletsitako eta Arabako Merkataritza Erregistroan inskribatutako eskritura publikoaren bidez eratua (IFK: A01312479), Aramaioko (Araba) Bizente Goikoetxea plazako 1. zenbakian, udaletxeko eraikinean, eta ekintza honetan LIERNI ALTUNA UGARTE Administrazio Kontseiluko presidente gisa aritzen dena.

Bi alderdiek gaitasun osoa aitortzen diote elkarri arestian aipatutako partaidetzako kontuen kontratuaren aldaketa eranskin hau formalizatzeke.

AZALTZEN DUTE

I. Udalak, Sektore Elektrikoko azaroaren 27ko 54/1997 Legearen Bigarren Xedapen Iragankorrenekin bat etorritik, elektrizitatea banatzeko sarearen kudeaketa, AAB, sozietate sortu berri baten esku utzi zuela, beti ere Udalak edukiz kapital sozialaren jabego osoa.

II. Bi aldeek partaidetzako kontu-kontratu bat sinatu zuten 2012ko abenduaren 28an. Kontratu horren bidez, araubide juridikoa ezarri zen ("kontratu nagusia"), energia elektrikoaren enpresa jardueran eskuratzen diren emaitzak ustiatzeko eta parte-hartzea arautzeko.

III. Alderdiek erabaki dutela bosgarren klausula aldatzea, aurreko paragrafoan aipatutako jardueraren balizko emaitzetan parte hartzeko arauak ezartzen dituena.



Azaldutakoari jarraituz, alderdiek honako betebeharrak izango dituzte:

KLAUSULAK

LEHENENGOA.- Aldeek adostu dute kontratu nagusiaren "bosgarren klausula.- balizko emaitzetan parte hartzeko arauak" honela idatzita geratzea:

"Udalak, AABk galerak baditu, emandako zenbatekoaren mugaraino erantzungo du.

Bestalde, Udalak sortutako emaitza ekonomikoetan parte hartuko du. Hau da, PARTAIDEARI jardueran lortutako fluxuaren % 80 ordainduko zaio (kontratuan eta l. eranskinean zehazten den bezala). Beraz, jarduera ekonomikoaren fluxua ekuazio honen emaitza izango da:

Kutxako fluxua = zergen ondorengo emaitza – Ordainketarik eragiten ez duten sarrerak (nagusiki, ibilgetu ez-finantzarioko diru-laguntzak) + ordainketarik eragiten ez duten gastuak (nagusiki, partaidetzako kontuengatiko pasiboak eta ekitaldiko amortizazioa) – Ekitaldiko inbertsioak. "

BIGARRENA. – Kontratu hau AAB enpresak 2020ko ekitaldian eta hurrengoetan dituen kontuetan aplikatuko da.

HIRUGARRENA.- Kontratu Nagusian ezarritako gainerako klausulak eta baldintzak indarrean egongo dira gehigarri honetan ezarritakoarekin kontraesanean ez dagoen guztian.

Horrela jasota gera dadin, eta ados daudela adierazteko, kontratu nagusiaren eranskin hau sinatzen dute, goiburuan adierazitako tokian eta egunean."

Azkenik, Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordeak Udaltzari egiten dion proposamena azaltzen du:

"Lehena.- Onartzea, A.A.B., S.A.rekin indarrean dagoen partaidetza kontu kontratuaren eranskina.

Bigarrena.- Erabaki honi 2020ko urtarrilaren 1eko atzeraeragina ematea.

Hirugarrena.- Eskuordetzea lehen alkateordea den Cristina Etxenautia Irure, dagokion kontratua sinatzeko.

Laugarrena.- Interesdunei jakinaraztea."

Besterik gabe, alkateak bozketa deitu eta Udaltzari, bertaratutako zinegotzien aldeko botoarekin, aho batez, Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordearen proposamena, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.

6. ONARTZEA, 2021EKO UDAL AURREKONTUA.

Alkateak aurkeztu du 2021 urteko ekitaldiari dagokion aurrekontu egitasmoa. Esan beharra dago, laburbilduz, aurrekontu egitasmoa egin dela, indarrean dagoen 3/2004 Foru Arauak, otsailaren 9koak, Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak agindutakoarekin bat eta bertan jasotzen diren dokumentuek osotzen dutela.

Halaber, aipatutako dokumentazio horren zati adierazgarrienaren kopia bidali zitzaizen aurretiaz bilkurako kide guztiei eta, horretaz gain, dagokion batzordean azaldu ziren egitasmoaren muina eta ildo nagusiak. Azpimarragarria da, indarrean dagoen legediaren arabera, aurrekontu orokorraren egitasmoak jasotzen dituela bi erakunderen aurrekontuak: batetik, Aramaioko Udaleko aurrekontua; eta, bestetik, Aramaioko Argindar Banatzailea, S.A.rena (azken horren aurrekontua onartzea bere administrazio kontseiluari dagokio).

Alkateak laburpena egiten du, Aramaioko Udalaren berriazko aurrekontuari buruz, kapitulu eta partida adierazgarrienak aipatuz. Baita ere, azpimarratzen du, ondorengo aurreikuspenak jasotzen dituela: batetik, sarrerak 1.817.895,65.-€ (iazkoarekin konparatuz, %6,17ko jaitsiera); eta, bestetik, gastuak, 1.817.895,65.-€ (iazkoarekin konparatuz, %6,17ko jaitsiera).

Pedro Elosegui González de Gamarra zinegotziak hitza hartu eta, adierazten du, EAJ-PNV udal taldearen iritzia aurrekontuei buruz. Hitzez hitz, horrela dio:

"EAJ-PNVk ezin du babestu alkate andreak eta bere taldean den Euskal Herria Bilduk aurkeztzen diguten aurrekontua. Gutxienekoen aurrekontua iruditzen zaigu, ez da asmo handikoa, eta ez da Aramaiok 2021eko ekitaldi honetan dituen premiekin bat datorren kudeaketa ekonomikorako tresna.



Urtea nola edo hala igaro nahi izateko aurrekontua da. Hain zuzen ere, 2021 bezalako krisi-urteetan gauzatu behar du politikak lidergoa, inoiz baino gehiago, eta ausarta izan behar du etorkizuneko planteamenduetan.

Eta alkateak aurkezten digun aurrekontua ez da hori bakarrik, guztiz kontrakoa baizik.

Proposatzen diguten aurrekontua kontuak doitzera eta sarrera gastuekin kulunkatzera mugatzen da. Eta besterik ez. Egia da diru-sarrerak% 6,17 jaitsiko direla 2020arekin alderatuta, baina egia da, halaber, azken bi ekitaldietako likidazioak positiboak izan direla, 2019an 400.000 €baino gehiago eta 2020an 300.000 €baino gehiago.

Aramaiok inbertsio handiko aurrekontua behar du, eta udalaren egoera ekonomiko eta finantzarioak horretarako aukera ematen du. Aramaiok inbertsio eta proiektu handiak ditu aurrera eramateko eta noizbait hasi behar dira.

Bistan denez, ez dira ariketa bakarreko proiektuak, baina dagoeneko kritikoa da abian jartzeko beharra. Gobernu taldea ekaitza salbatzera mugatzen da, baina hori ez da nahikoa.

EAJ-PNV taldearen proposamenak, bigarren urtez jarraian, hori besterik ez egitea, aurrera begiratzea, orainaldian ez geratzea. Aurrera begiratzea garrantzitsua da. Gure proposamenak gehienetan ibilbide bat markatzera, bide bat adieraztera eta bultzada bat ematera mugatzen dira.

Proposamenak, berriz, hauek dira:

| Inbersioak | Aurrekontua (€) |
|--|-----------------|
| Eguneko zentroa handitzeko egitasmo | 10000 |
| Egoitza bideragarritasun azterketa | 10000 |
| Udalerriko Irisgarritasuneko hobetzeko lanak | 20000 |
| Udalerriko aparkalekuko azterketa | 15000 |
| Arrasateko kolektorearekin konexioa | 10000 |
| Bidegorri Kurtzea/San Roke/Andra Mari | 50000 |
| Guztira | 115000 |

Norbaitek esan zuen tren batek, trenbideari distira atera arren, tren-makinarik ez badu, gelditu egingo dela. Eta horixe uste dugu Aramaion honelako aurrekontuekin igaroko den gure taldekook.

Aramaiok ahalmen ekonomikoa du, aurkeztu zaigun diruzaintzak hala dio, 1,5 milioi euro baino gehiago kutxan. Aramaiok finantza-gaitasuna du. Gaur egungo zorra zero da. Dauden baliabide ekonomikoak martxan jartzeko eta zorraren bidez finantzatzeko unea da.

Hala egin dute Euskal Herriko erakunde gehienek, Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundia bera buru direla. Krisialdia sortzeko, imajintzeko, mugitzeko, egoerak aurreratzeko, etorkizuna argi ikusteko garaia da.

Gure proposamena zentzu horretan doa, umiltasunez baina zentzu horretan. Ezin dugu itxaron zer ekartzen diguten, zer ematen diguten ikusi arte; aurrea hartu behar dugu, aurrera begiratu eta bidea ireki. Bestela leku berean egongo gara, gutxi aurreratu eta trena geldituko dugu. Ideiarik gabe, aurreko aurrekontua, programa berberak, diru-laguntza berberak, ekimen berberak ia mimetikoki errepikatuz

Anbizioa, energia eta lana behar ditugu, eta aurrekontu hori denboralea harrapatzen saiatzera mugatzen da, eta ez dugu uste hori ere lortuko dugunik.

Ezin dugu horrekin bat egin, eta gure gaitzespena adierazi besterik ezin dugu egin, kontu hauen aurka bozkatzuz.”

Alkateak erantzuten dio, gastuak eta inbertsioak egiten direla baina, beti ere, aurrekontuko sarreren arabera. Horretaz gain, aurreikusita dagoela 2020ko soberakina erabiltzea hainbat proiekturi heltzeko, bestela, sarrerek ez dutela aukera ematen.

Pedro Elozegui zinegotziak erantzuten dio krisi garaian administrazioak gastatu egin behar duela eta baita zorpetu ere. Ezin dela itxoiten egon.

Alkateak, berriz dio, ez dagoela itxoiten. Soberakina ahalik eta lasterren gaituko dela aurtengo aurrekontuan inbertsio gehiago finantzatzeko. Zorpetzearen beharra ez dagoela, baliabide nahikoa baitu Aramaioko Udalak.



Oihana Ameskua Perez zinegotziak hitza hartu eta azaltzen du, aurrekontu proposamenak eta EAJ-PNV udal taldeak aurkeztutako egitasmoak, nahiko berdinak direla. Kontua da, alde ezberdinetatik eta modu ezberdinean iristen direla.

Jaun Antonio Peña Orobengoa zinegotziak erantzuten du ikuspuntuak oso ezberdinak direla. Azkeneko batzordean ere ezin izan zirela bi posturak hurbildu. Ikusten zela beharrak zeudela baina ezin moduak hurbildu.

Iban Herrarte Aranak gogorarazten dio, iaz ekarritako egitasmo ia berdinak direla eta, aurrekoan esan bezala; batzuk aurrera doaz planifikazio baten barruan; beste batzuk, gaian eskumena duen erakundearekin hitz egiten ari dela udala; besteak, aipatu den bezala, soberakina gaitutakoan helduko zaio; eta abar. Azkenena, ez asmoak berdintsuak dira, baina proposatzen den bidea ezberdina.

Pedro Elosegui esaten du, egitasmoak iaz ekarritako berdinak direla, baina jasotzen dituzten erantzunak baita ere.

Besterik gabe, alkateak aurkezten du Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordeak Udalbatzari egiten dion proposamena:

“**Lehena.-** Hasierako onarpena ematea 2021eko udal aurrekontu orokorrari. Ondorengoa da aurrekontuaren laburpena:

- 2021 ekitaldiko udal aurrekontu propioa

| GASTUEN EGOERA | | SARREREN EGOERA | |
|--------------------------------------|-----------------------|---------------------------------|-----------------------|
| 1. Langileen ordainsariak | 464.568,63 € | 1. Zuzeneko zergak | 466.098,00 € |
| 2. Ondasun arrunten eta zerbi. erosk | 947.640,73 € | 2. Zeharkako zergak | 15.000,00 € |
| 3. Interesak | 1.700,00 € | 3. Tasak eta bestelako sarrerak | 165.875,28 € |
| 4. Transferentzia arruntak | 185.154,49 € | 4. Transferentzia arruntak | 876.757,72 € |
| 6. Inbertsio errealak | 218.331,80 € | 5. Ondare sarrerak | 185.206,48 € |
| 7. Kapital transferentziak | 500,00 € | 7. Kapital transferentziak | 108.958,17 € |
| <u>Guztira</u> | <u>1.817.895,65 €</u> | <u>Guztira</u> | <u>1.817.895,65 €</u> |

- 2021 ekitaldiko AAB enpresa publikoaren aurrekontua

| GASTUEN EGOERA | | SARREREN EGOERA | |
|--------------------------------------|---------------------|---------------------------------|---------------------|
| 1. Langileen ordainsariak | 40.804,97 € | 3. Tasak eta bestelako sarrerak | 393.336,54 € |
| 2. Ondasun arrunten eta zerbi. erosk | 221.019,82 € | | |
| 6. Inbertsio errealak | 131.511,75 € | | |
| <u>Guztira</u> | <u>393.336,54 €</u> | <u>Guztira</u> | <u>393.336,54 €</u> |

- 2021 ekitaldiko bateratutako aurrekontu orokorra

| GASTUEN EGOERA | | SARREREN EGOERA | |
|--------------------------------------|-----------------------|---------------------------------|-----------------------|
| 1. Langileen ordainsariak | 505.373,60 € | 1. Zuzeneko zergak | 466.098,00 € |
| 2. Ondasun arrunten eta zerbi. erosk | 1.168.660,55 € | 2. Zeharkako zergak | 15.000,00 € |
| 3. Interesak | 1.700,00 € | 3. Tasak eta bestelako sarrerak | 559.211,82 € |
| 4. Transferentzia arruntak | 185.154,49 € | 4. Transferentzia arruntak | 876.757,72 € |
| 6. Inbertsio errealak | 349.843,55 € | 5. Ondare sarrerak | 185.206,48 € |
| 7. Kapital transferentziak | 500,00 € | 7. Kapital transferentziak | 108.958,17 € |
| <u>Guztira</u> | <u>2.211.232,19 €</u> | <u>Guztira</u> | <u>2.211.232,19 €</u> |



Bigarrena.- Agintzea, dagokion iragarkia argitaratzea Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean eta hamabost eguneko epea irekitzea epealdi horretan interesatuek espedientea aztertu eta udalbatzari egoki deritzoten erreklamazioak aurkeztu ahal izateko, 3/2004 Foru Arauak, otsailaren 9koak, Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 15.1 artikuluan xedatutakoa betez.

Hirugarrena.- Jakinaraztea, halaber, epealdi horretan erreklamaziorik aurkezten ez bada, aurrekontua behin betiko onetsizat joko dela, beste erabakiren bat hartu beharrik gabe.”

Bozketa deitu eta Udalbatzak, EH Bilduko zinegotzien aldeko 7 botoekin eta EAJ-PNVko zinegotzien aurkako 2 botoekin, Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordearen proposamena, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.

Alkateak EAJko zinegotziei jakinarazten die, berehala ekingo zaiola soberakinetik aurrekontu berrian txertaketak egiteari, inbertsio gehiago egin ahal izateko. Inbertsioen lehentasunak erabakitzeke bilera horietan parte hartzeko gonbitea luzatzen die.

Pedro Elosequik erantzuten du ez dutela parte hartuko, ez dela hori beraien lana.

Azkenik, eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak bukatutzat eman du osoko bilkura hau, goiburuan adierazitako egunean eta orduan, eta nik Aramaioko bitarteko idazkari-kontuhartzaileak, hala ziurtatzen dut, alkatearen oniritziarekin.